

BASOAREN IRAKASPENA

Sustraietan tinko ikusi ditut
lurrari ongi helduak haritzak
pago-tantai zein bertako zuhaitzak,
gure basoetan lerden eta zut;
besteak berez-berez indartuak
iraganak poliki onartuak.

Basoa miresten harri eta zur:
biziaren berezko paradisu
hainbat izakiren babes eta lur,
ikastera datorrenaren maisu,
isiltasunean kontu kontari,
edo haizeaz batera kantari.

Begira nago hartan murgildurik
kreaturen goi-kontenplazioan,
Kreatzaileagana hurbildurik,
gogoa jarriz haren lezioan,
bere ederra baitzien Hark itsatsi
eta pasatzean bereaz jantzi.

Kotoi zuri aratzez estalia
eguzkiak begi argi eginik,
aurpegia igurzten jaiki ezinik

goiza bertan gozo eta nagia...
baina agertu du basoak burua
eta liluraz bete du ingurua.

Basoan harmonia da nagusi,
askotarikoen elkarbizitza
txiki eta handi batera dabilta,
batasun-zantzua nuen ikusi;
lehia ere bai: batzuk gailentzea
eta besteak aurretik kentzea.

Eta hau zer? Bizitzaren legea,
basokoa baina ez 'basatia',
berezko joko tranparik gabea
partaide ez duenean gizakia;
horra hobereenen hautatze formala
lehiaren emaitza sano, normala.

Basoa askotariko landarez,
kolore horixka eta anbarez
begitarte nabar tristurazkoaz
agurka agur udazkenekoaz;
halere eder, eme, liluragarri,
udaberrian bezain zoragarri.

Eta atarian barna sartu nintzen
jakin-minak hartara erakarriz,
oro miresten, eta maitemintzen
hasiz hain ikuskizun zoragarritz.
Horra hor amandrearen altzoa,
landarez eta fruituz oparoa.

Txiki nahiz handiak kabitzen dira
amandrearen altzo amultsuan
handiek dei degigute begira,
txikiak besoetan deskantsuan,
aspaldidanik han leku hartuak
ustez nahasian, ongi kokatuak.

Hainbat izen datoz orain burura:
gorostia, elorria, gurbitza;
hemen arantza zuri eta hurritza,
hor zidor bat erleen ingurura;
usain ona: ereinotzak, txilarrak,
kuku-prakak, jainkoaren atzamarrak.

Animaliak nahiz basapiztiak
partaide dira basoko jokoan
sartu-irten aritzen dira guztiak,
beren senak hartara emandakoan;
sugeak, sugandilak nahiz muskerrak
han egiten dituzte beren gerrak.

Baina patariak arrastaka utziz
noan goiko gure hegaztietara,
gure txepetx eta zozoetara,
haiek gabe triste nengoke guztiz;
maite ditut nik goiko bidaztiak
dena alaitzen duten aireko aztiak.

Haurtzaroko oroipenak hariltzean,
txorien txoko kutunak datozkit
lauso antzean, harantz hurbiltzean,

gogoan gordetzen ditut geroztik:
txepetx-habia hantxe huntz artean,
zozo-habia zuhaixka batean.

Gizakiak sartua du eskua;
ez du egiten ordena jarri baizik,
merkatuko ordena hotz estua,
ez du ekologiazko ametsik;
zuzen joan nahi du beti berera,
ez poesiara, bai etekinera.

Eta pinuaz dena zaigu belztu,
itxura batean dena aldrebestu;
guztiak ditu maite amandreak,
etorkinak nahiz bertako jendeak,
beltz-beltzak, beltzaranak nahiz zuriak,
erbestetatik gurera isuriak...
denei egiten baitie hark leku
inori ere ez, ordea, debeku.

Luis Baraiazarra Txertudi
2017-03-12